

Gorbeialdeko mitoak eta euskara



Juan Manuel **Etxebarria Ayesta***

Bidea zelakoa den jakiteko norbera bertotik sarritan ibilita egotealakorik ez dago. Behin horraz gero, 1975ean Ander Manterolak On Jose Miguel Barandiaranen Bizkaiko Etniker taldekide egín ninduenetik, etno-linguistika bidean daragoiot Gorbeia inguruko herrietan, batez ere, Zeberio. Oraingo hitzaldi honetan, nire neure “Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak” liburua hartu dut aztergai bere nondik norakoa argítuz, beti ere, etorkizuneko euskeraren aberasbidean.

Giltza-Hitzak: Zeberio. Gorbeialdea. Herri-euskera. Mito. Esaunda. Supelegor. Mari Anbotokoa. Etno-Linguistika.

No hay mejor manera de conocer el camino como haber caminado por él con frecuencia. Así que, desde que Ander Manterola me introdujo en el grupo Etniker de Jose Miguel Barandiaran de Bizkaia, en 1975, me dedico a la etnolingüística en los pueblos de la zona del Gorbea, sobre todo en Zeberio. Para esta charla he analizado mi libro “Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak”, explicando todos sus pormenores, siempre en aras del futuro enriquecimiento del euskera.

Palabras Clave: Zeberio. Zona del Gorbea. Euskera popular. Mito. Leyenda. Supelegor. Mari de Anboto. Etnolingüística.

La meilleure manière de connaître un chemin c'est de l'emprunter fréquemment. Et c'est ainsi que, depuis qu'Ander Manterola m'a introduit dans le groupe Etniker de Jose Miguel Barandiaran de Bizkaia, en 1975, je me suis consacré à l'ethnolinguistique dans les villages de la zone du Gorbea, à Zeberio principalement. Dans cet exposé, j'analyse mon livre « Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak », en expliquant tous les détails, dans un souci de futur enrichissement de l'euskara.

Mots Clé : Zeberio. Région du Gorbea. Euskara populaire. Mythe. Légende. Supelegor. Mari de Anboto. Ethnolinguistique.

* Deustuko Unib. Euskal Filologia Saila. Unibertsitate Etorbidea, 24. 48007 Bilbo.

SARRERA

Bide bat zelakoa den jakiteko, norbera bertatik ibilita egotealakorik ez dago. Baina bide horrek hasiera izan behar du eta nire kasuan, besteak beste, irakasle bi aipatu behar ditut. Bata Ander Manterola eta bestea On Jose Miguel Barandiaran. Nire ikasketei begirada bat boteaz, Derioko Seminarioan egin nituen Filo-sofiararteko ikasketak. Gero Magisteritza eta geroago, sortuz batera, Euskal Filo-logia. Magisteritza amaitu nuenean, irakasle bezala joan nintzen berriro Derioko Seminarioa baina ordurako Seminario-Colegio bihurtua, apaizgaiak lekuz aldatu zituztelako.

Irakasle hasiberria nintzela, Ander Manterolak On Jose Miguel Barandiaranen Etniker taldean sartzeko gonbitea egin zidan eta nik neuk atoa eman nion baietza.

Hantxe eta halaxe hasi nuen oraindik orain aurrera daroadan ikerbidea.

On Jose Miguel Barandiaran ezagutu eta berarekin taldean lan egitea eredu-garria izan zen niretzat eta berak zabaldu zizkidan begiak egiten nabilen beharrari gogatsu ekiteko.

Hasieran, J. M. Barandiaranen *Guía para una encuesta etnográfica* inkesta ospetsua egiten hasi nintzen, non? eta Zeberio herrian, neure herrian. Zergatik? Ba, aiko, honexegatik: On Jose Miguelek berak esaten zigulako norberak ondoen bizi duen lurraldean emaitzarik zehatzenak lortzen direlako. On Jose Miguel Barandiani berari ere horixe berori esan zion behin Leipziger-eko Wundt irakasleak eta horrexegatik sartu zen buruz belarri euskal munduaren sakonetan eta aikor Euskal Herriak beti eskertuko dion altxorra.

On Jose Miguel Barandiaranen moduko maisu baten aurrean akonplejatzeko arriskua egon liteke baina bere ikasleak izan garenok ez zaigu hori gertatu, On Jose Miguel, ezer izan bada, bide zabaltzaile eta animatzaile izan dugulako. Bide horretatik, neuri gertatutakoa azalduko dut:

Derioko Labayruko Bibliotekan geunden behinola Etniker bilera batean eta etenaldian mito bat kontatu nion On Jose Migueli, zein? eta haxe:

Anbotoko señoraa superlegorren (25.5)

Berriemailea: Simon Goyoaga. Izatez, Zeanuriko Ipiñaburukoa. Orozkon kridu egondakoa, jarraian Arteako Seminarioan beharren eta handik Zeberioko Undurragara ezkondua. Bertan bizi izan zen hil arte. 1979ko grabaketan 77 urte zituen. Laurogeitik gora zen hil zenean.

Urigoiti azpien dan Olarten ein aurien olea. Orduen munduen es egoan fraikerik es eser. Et´ antxe arriegoan burriña edo eiteko, eta fundauen olea.

Da olea fundeu auen lekuen imini euren itzelesko errud(a) andi bet, egurreskoa a olea mogitako.

Asi sirian ba bearren asteko, ta ifini aurien olori t´esin aurien mogidu esetara be. Eta baten batek esan otzela:

- Ori olori mogidu bear bosue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana yoan beosue konsulte bat artzean ia sela(n) mogidu leien.

Da usabak, propiedadedun bet ixingo san, da bera bildur de, errentorea agindu auen.

Eta errentorea yoan san Supilaurko kuebara Anbotoko Señoreagana, da, Anbotoko Señoreak ei auken alboan erri-sekor bat itxunde eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

- Ementxe nator ba
- Ser dakastesu ba? - kontestautzela.
- Konsulte batera nator,-t´esan otzen-: Urliek, Olarteko serak, - nausi bet isingo san, lenaokoa, -, olea in dau d´esin dau mogidu, da batonbatek esan dotzo konsultetako Anbotoko Señoreagas.

D´anbotoko Señoreak esan otzen se:

- Au olau mogidutia gure bosue, urlie komentoko superiorragana soasie t´axek esangotzue. Se ori olori suo(k)t(d)aukosue bendesidu barik - se fraikek eta oneik autoak eta barkuek eta oneik bendesidu estire eiten? - eta orrek olorrek esin dau mogidu deabrue(k)t(d)auko detenidute.

T´emon otzen sagardoa, basusagardoa, basukadea. Lenao usedioa egotesan ullesko subiak fundetan sireala iturrietan da baton batek edan auela ullia ta gusti, sera, ure, ta fundidu yakola barruen subia, aregas ulliagas da gero andik etorri sala “Jesus” esateko usedioa, edan itorduen. A “Jesus” esan eskeitiño estala formetan suberik. Balitike ori egie ixitia esta?...kontetan dire ta, gausek eta...

Eta orre(k)p(b)esteorrek, basu sagardoa edan auen da esakerea auken “Jesus”, eta esan auen “Jesus” eta itxi autzen basue.

Eta badiñotzo Señoreak:

- Au basu au eroaixu, se onegas len badauke(t) penitentziegandik, andiagoa(k)t(d)aukodas, se au basu au suk in dosu bendesidu, “Jesus” esan dosunian.

Da yoan sirian komentuko superiorragana d´etorri sen superior ori t´estolea imini, bere yantzie suntu d´asi sen bere bereinkasiñoa botaten.

Eta tu-rru-mu-tu! ikeragarrisko bategas asi sen orrenbeste egurreko errudia bueltaka.

Danak ikeratute, eta superiorrak esaten otzien: Es bildurtu, es bildurtu, es bildurtu...!

Eta askeneko burrundada bategas yoan i sen andi deabru ori eta esautzen superiorrak:

- Ikustosue? Suok lelengotan bendesidu in basinduen, bearra asi orduko, au mogidu ingo san ondo. Baye tire, oin segidu olonegas, s(e) egon da deabrue(k)t(d)etenidute.

Su, balitike orreik egiek ixitea esta? Ara, siñestu gur(e) estituena(k)p(b)e, an daukies ondiokarren an Olarten aldibeteko olearen antigualeko serak, arriek, sinifika-siñoa antxe aukingo daurie.

Mito hau kontatu-akabatuz batera, On Jose Miguelek buruko txapelari gorantz egin eta esan zidan:

– Non bildu duzu mito eder hori?

– Ba, nire auzoko gizon batek kontatu dit, hobeto esanda, txikia nintzenetik kontatzen zizkidan Gorbeia inguruko mito eta esaundak eta horrelako beste asko dakizki.

– Aizu, ba, zergatik ez dizkiozu grabatzen magnetofonoz eta trankribatu eta gero gure Etniker aldizkarian argitaratu?

Halaxe egin nuen. Hasieran A. Manterolak lagundu zidan trankripzio fonologikoak egiten eta jarraian argitaratzen.

Nire Etnografia lana 1975ean hasi nuen eta lehenengo beharra berriemaileak aurkitzea izan zen eta eurei grabazioak egiteko magnetofono bat lortzea. Egia esateko, garai horretan ez geneukan gaur egunean besteko erarik tresna egokiak lortzeko baina ni, zorionez, magnetofono baten jabe nintzen osaba Ambrosiok Afrikatik ekarri zidalako.

Berriemaileak era bitara antolatu nituen. Alde batetik On Jose Miguelen inkesta egiteko eta bestetik gainetiko gai interdisziplinari guztietarako.

Inkestarako, neure etxera jo nuen, Zeberioko Undurra-beheko baserrira. Gure etxea, etxaguntzako izan da eta hiru belaunaldi batera bizi izan gara.

Bilketa lana ahoz zein idatziz lortu izan dut. Ahozkoa magnetofono bidez eta idatzia era honetara: Aitari koaderno bat erosi nion eta galderaz bete, batez ere, baserri inguruko ekintzak idatziz kontatzeko, baina bere euskeran, etnotestean. Amari ere beste koaderno bat baina hitz zaharrak, esamoldeak, esaerak, abes- tiak eta abar idazteko.

Emaizta zoragarria. Agor ezineko iturria eta etxean bertan. Zenbat bider esan dit Gotzon Garatek nik izan dudana suertea etxaguntzako baserrikoa izateagaz!

Mito, ipuin, esaunda eta abarretarako, etxera ere bai baina batez ere auzoko Simon Goyoaga jakintsuagana jo nuen, berea zelako On Jose Migueli kontatuta- ko lehenengo mitoa. Esana egin nion eta ez naiz damutu.

Horrela ekin nion urte bian eta 1977an Euskal Filologia sortu zen Deustuko Unibertsitatean Gotzon Garateren eskutik.

Birritan pentsatu barik, matrikulatu egin nintzen, nokturnoa izatera posible nuelako nire irakasle lanarekin. Baina, jakina, lan egin eta ikasteak egun osoa betetzen zidan eta ez nuen hainbeste denbora Etniker lanari ekiteko eta horretara A. Manterolari esan egin nion nire ardura eta aitu zer erantzun zidan:

Aiko, Juan Manu, ondo egiten dok, joan hadi eta Euskal Filologia egin, gero hobeto egingo dozak eta Etniker beharrak.

Amaitu nuen Euskal Filologia eta ondo egin ere gainera. Lizentziaturan Oho-rezko Matrikula atera nuen K. Mitxelenaren eskutik.

Karreran zehar ere bai baina Euskal Filologia bukatu eta gero berrien berriz sartu nintzen buruz belarri Etniker lanetan eta bide batez Doktorego Tesia egiten K. Mitxelena zuzendari nuela, M^a Angeles Larrea eta Jose Luis Gotiri eskerrak.

Horrela bete zitzaidan A. Manterolak esandakoa. Alde batetik Etnografia eta bestetik Linguistika eta hortik Etno-Linguistika. Doktorego Tesiaren izenbura ere hotxik bideratu nuen, konkretuki: *Zeberio haraneko euskararen azterketa Etno-linguistikoa*.

Etnografia bilketak egiteko Hizkuntzalaritza ondo baino hobeto etorri zait batez ere ahoskotasunaren zehaztasuna zaintzean. Datu bilketetan zehatz jokatzea garrantzitsua da etorkizunerako lekukotasun zehatza eta fidagarria uzteko.

Behin bide horretaraz gero, aurrera egin nuen eta orain ere badaragot jo ta ke eta egindako lan horri ekingo diot hurrengo lerroetan.

Egindako eta egiten nabilen lan guztia aipatzea luzeegia denez, 1995ean argitaratutako liburuan egingo dut parada, aikomen izenburua: *Gorbeia inguruko Etno-lpuin eta Esaundak*. Labayru-BBK. Bilbo 1995.

Liburu honetan atal bat baino gehiago agertzen dira eta laburbilduz aipatu egingo ditut.

1. IKERKETA

1.1. Indizea

Indizea, berriemaile bakoitzak kontatu ahalakoa da eta gero azken partean agertuko da indize tematikoa.

1.2. Hitzaurrea

Jabier Kaltzakortak egindako hitzaurrea da eta maisuki egina izan ere. Esandakoa baieztatzeko zer hobeagorik J. Kaltzakortaren berberaren berbak erabiltzea baino. Aikomenzan:

Liburu honetan, Juan Manuel Etxebarriak Bizkaiko besorik eder eta zabalenak euki dituen, eta orain neurri handi batean mehattuxe euki arren, Gorbeia inguruko, edo hasi Gorbeian eta Baranbiorainoko, ipuin esaunda kontu eta etnotestuak eskeintzen dizkigu. Ez da lehena Gorbeia inguruko ipuinen berri ematen, berak baino lehen Aita Barandiaranek eman zigun eta, gainera, idatzi zuen azkenetariko artikulua Gorbeia inguruko berri emanez egin zuen (BARANDIARANGO JOXEMIEL: "Esaundak, sinis-menak eta Mitoak Bizkaiko mendietan". *Etniker Bizkaia* 8, 11-19 orr.).

Lino Akesolok ere, zoritxarrez gutxiago ezagutzen den lan zoragarri bat eskeini zigun *Ipiña eta Ipiña tarren barri* Zeanuriko Ipiñaburu aldeko zehaztasun eta esaundaz. Esan barri dugu ez dela lehena izan baina horrekin batera esan dezakegu, inolako zalantzarik gabe, ugariena eta zehatzena dela. Barandiaranen eta Azkueren lanak meritu handikoak dira ezpairik gabe, baina ahozko euskararen zehaztasun eta ñabardura askok ihes egiten digute. Aita Linoren lanean ipuin eta esaundok orraztua eman zizkigun. Juan Manuel Etxebarriak begietaratzen digun lan honetan batetik ezpainetatik harako hizkera den denean ematen digu bestetik forma estandarra lehenaren lagungarri.

1.3. Etnoteston irakurketa erraztuz

Liburu guztiko ipuin eta esaunda guztiak zutabe bitan banatuta eskeintzen dira. Alde batetik zintarik harako etnotestoa eta bestetik bertsio etimologikoa.

Hori dela eta, alor honetan, kontsonante multzoen ahozkerari buruzko kasuistika luze eta arrazoitu bat ematen da. Jarraian Euskaltzaindiak onartutako fonemen taula dator eta azkenik Gorbeia inguruko hotsen taula fonetikoa.

1.4. Etno-ipuin eta esaundak

Hauxe da liburuaren zatirik luzeena. Hauxe da 50 berriemaileengandik bildutako altxorra. Orrialdeetara joanez gero, zati honek 201 orrialde ditu.

Ipuin edo eta esaunda bakoitzean zenbaki bi agertzen dira. Batetik berriemailearena eta bestetik berriemaile horrek kontatu ahalako zenbakia. Batzuk urriak dira baina beste batzuk aberatsak baino aberatsagoak. Adibide gisa aikor 25 zenbakidun berriemailea, Simón Goyoaga (25.28), hots, 28 ipuin edo eta esaunda kontatutakoa. (Eta ez da agortu bere iturria, izan ere, laster bere grabaziorik harako gehiago ere argitaratuko ditut Etniker aldizkarian).

Eredu gisa, liburuko lehenengo mito edo esunda jarriko dut bertsio bietan. Berriemailea neure aita zena: Patxi Etxebarria Arroita. Grabaketa 1979an.

1.4.1. Etnotestoa

1.4.1.1. Itargia-Eguzkia eta Mundua (1)

Aldi beten, nosik ona estakigule, eguskie t´itargie andra-gixonak i sirean, da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daoela, badiñotzo eguskiek arrokeris beterik: Ikustona Mundue, egunean baño egunean ederrago! Bai, ikusiko etxoapa! Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero! Bai, eta ni naure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak etxopalo esetarako! Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok

itargieri eta erreunes bete bekokitik okotzerañoko gustie. Untxe t'untxe be esaun daus aik erreunak, aitutea baño estao itargieri idergi betea danean. Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi yakon sein eguskiek e bearrestanen bat in. Eguskie orduen atzerikara gañetu yakon mirue arrari letxe eta odolak ur eiteko gitxien faltan. Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, ta ilbera gustien eragoyon eguskiek itargie kuxetan. Itargien arnasestue eta magalotza iños ikusi bakoak sirean eta bere burue olan ikusirik badiño berekitan: gesubeten gañetu bea yatak eguski armin kokorio ori, baya etxok o berea ingo lelengoa! Eguskie orpoetan ar bari(k)tx(y)oakon atzerikara eta ogeta sortzigarren egunean ie ie kuxau inik aukela, estotzo itargiek e bere burua gordetan! Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunetxoan egunek etorri, itargie atzerikara ikustauen eta badiño bere artean: burue non gorde yostan baño estok orrek andra galerorrek! Orduen, atzera in esin auen les, arin eragoyon eragon be itargie barriri atzerikara kuxetako d, orretarako denodu gustiegas eta inisitue baño arinago ibilite be, beste ogeta sortzi egun bear ixin ausen, baye itargiek osteria be bere burue gorde, batepaki non!... Gaur be undiño or yabikus eguski-itargiok bata bestearen atzean, egunes beroa ta gaubes iñontza dariola.

1.4.2. Bertsio Etimologikoa

1.4.2.1. *Itargia-Eguzkia eta Mundua (1)*

Aldi baten, nozik ona ez dakigula, eguzkia eta itargia andra-gizonak ei ziran, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz elduko dagoala, badiñotso eguzkiak arrokeriz beterik:

Ikusten dona Mundua, egunean baiño egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez joat ba!

Ba, ori edertasun ori neure argi eta beroari esker dona gero!

Bai, eta nire neure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak ez jok balio ezertarako!

Ori entzun ba eutsan ba ze, aserretuten jako eguzkia, artzean dau esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi aurpegira bota eutsazan txingerrrok itargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerañoko guztia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz areek erreunak, aitutea baiño ez dago itargiari idergi betea danean.

Baia, eguzkia ain ikusten euan berde, bildursartu eginda egoan itargia eta karran asi jakon zein eguzkiak e bear ez danaren bat egin. Eguzkia orduan atzerikara gaiñetu jakon mirua arrari letxe eta odolak ur egiteko gitxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, eta ilbera guztian eragion eguzkiak itargia kogi(du)etan. (Gazt. cogiendo).

Itargiaren arnasestua eta magalotsa iñoiz ikusi bakoak ziran eta bere burua olan ikusirik badiño berekitan:gesu baten gaiñetu bear jatak eguzki armin kokorio ori, baia ez jok o berea egingo leenengoa!

Eguzkia orpoetan ar barik joakon atzerikara eta ogeita zortzigarren egunean ia ia kogidu eginik eukala, ez deutso itargiak e bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak artu eutsazan eta egunak joan egunak etorri, itargia atzerikara ikusten euan eta badiño bere artean: burua non gorde jaustan baiño ez dok orrek andra galera orrek!

Orduan, atzera egin ezin euan lez, arin eragoion eragon be itargia barriro atzerikara kogiduteko eta, orretarako denodu guztiagaz eta inizitua baiño arinago ibilita be, beste ogeita zortzi egun bear izan euazan, baia itargiak ostera be bere burua gorde, batek badaki non!...

Gaur be oraindiño or jabilkuz eguzki-itargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gauez iñontza dariola.

1.5. Resumen en castellano de cuentos y leyendas del Gorbea

Zati honen arrazoia hauxe da. Behin Donostiko EUTGn, hots, Deustuko Unibertsitatean, kongresu bat antolatu zen gai honen inguruan eta Julio Camarenak (Madrilgo Consejo Superior de Investigaciones Científicas-eko kideak) bere hitzaldian aipatu egin ninduen. Amaieran hurbildu egin nintzaion eta neure burua aurkeztu. Horretara esan zidan:

Tenía ganas de hablar contigo. Tus mitos y leyendas son interesantes pero al publicar sólo en euskera hay mucha gente que no sabemos el contenido. ¿Por qué no introduces un resumen de cada mito o leyenda en castellano o inglés con el fin de que se puedan conocer y catalogar internacionalmente?

Eta halaxe egin nuen eta hortxe dago zenbakiz zenbaki bakoitzaren laburpentxoaz gazteleraz.

1.6. Hiztegia

Herri euskera aberatsa da eta aberastasun horrek, leku-denborak bitarteko, zailtasunak izaten ditu ulertzerakoan. Horrexegatik jarri dut hau hiztegi lagungarri hau, alde batetik bizirik dagoena ezagutzeko eta bestetik etorkizunera bideratzeko. Badaukanak, zer galdu dauka, ez daukanak ez. Horregatik, honelako hiztegi argigarriak beharrezkoak direla uste dut gure ama-euskera aberastasun osoz bideratu nahi badugu etorkizunera.

Gehiago oraindik, herri-euskera aberats honetan orain arteko inongo hiztegitan agertzen ez diren hitz edo sinonimo ugari aurkitzen dugu eta hitzok berreskuratzea egin behar dira, bestela betiko galduko dira. Aikomen hiztegi-tan agertzen ez den adibide bat: “Tximinizuloko **ketea**”.

Ketea/ keta: kedarrea edo sutondo gaine edo eta tximinietan sortzen den ke-harri gazi eta mingots handikoa. (Esaera bezala ere erabiltzen da zeozer oso gazi dagoenean: *ketea baino gaziago dago*).

Hiztegiak ari gara baina beste maila morfosintaktikoetan ere beste hainbeste gertatzen da eta badagoena batu egin behar da eta adierazi mundu guztiak eza-gutu eta erabiltzeko. Zergatik ez?

1.7. Arkibide tematikoa

Hasierako indizea berriemaileek kontatu ahalakoa denez, hemen gaika antolatatu da mito eta esaunden mundua sailkatuz behar denean errazago bilatzeko Euskal Mitologiaren barruko pertsonai eta gainetikoak.

1.8. Berriemaileak

“Bakoitzari berea” dio esaera zaharrak eta berriemaileen kasuan ere esan egin behar da nor den eta abar guztia. Aita Barandiaranek honela esten zigun hitzaldietan: “No omitan ustedes ningún detalle por pequeño que sea”. Eta egia da. Sarritan, berriemaileak ez dira beti leku batean bizi. Ezkondu edo aldatu ere egiten dira herriz edo hiritartu eta horrek bere eragina izaten du batez ere hizkuntzan. Adibide bi jarriko ditut eredu gisa: 25 eta 31.

25. Berriemailea: Simon Goyoaga. Izatez, Zeanuriko Ipiñaburukoa. Orozkon kridu egondakoa, jarraian Arteako Seminarioan beharren eta handik Zeberioko Undurragara ezkondua. Bertan bizi izan zen hil arte. 1979ko grabaketan 77 urte zituen. Laurogeitik gora zen hil zenean.

31. Berriemaileak: Maria Concepción Goti eta Estanis Etxebarria Zubizarreta. Andragizonak, 60 eta 59 urte, grabaketa 1983an. Biak aipatzen ditut eta arrazoi hauxe da: Estanis bera da ipuin kontalaria baina bokale kordetatik operatuta dago eta ezpainak bakarrik mobitzen ditu. Bere andreak den dena ulertzen dio eta jarraian kontatu. Beraz, transkripzioa andrearen ahotsari egindakoa da.

1.9. Hizkuntzalaritzari ekarria

Gaur egun, euskera estandarra darabilgu baina herri-euskera bizirik daukagu bere aberastasunean. Euskera aberats horri ezin diogu tabula rasarik egin. Euskeraren leku-denborak kontutan hartu behar dira eta guganaino heldu dena etorkizunera bideratu euskara batuaren aberastasun bidean.

Esandakoa arrazoitzeko, aikomen herri-esaunda eder hau lau bertsiotan:

Mari, Anboton eta supelegorren

Berriemailea: Juan Solatxi Emaldi. Zeberioko ergoienekoa, Etzebarri auzokoa. Baserritarra baina fabrikara beharren ibilia. 1986an 72 urte. (OHARRA: Ipuin-esaunda hau, beste asko bezala, 1995ean, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* nire liburua argitaratu eta geroagoan transkribatutakoa da artxiboan ditudan zintetarik).

MARI, ANBOTON ETA SUPELEGORREN

1) Etnotestoa

“Aititeamamari sarri daukoti entzunde ori Anbotoko Señorean kontu ori. Gure sarrak ee... olango gausa asko kontetoskuesan bates be negu inguruen an besuen obuena bermutzik eta esku kiputuek berotan oten gintzesanean sein otzatragau.

Gurean, aitite gendun kontulariagoa eta gaubiluntzetan artagarantan eragoion bitartean itzelesko kontue(k) kontetoskusan, seinbet gure eta arexen beste.

Baten e, Anbotoko Señorean kontuekas asi jakun, denodu gus-tiegas asi be, segun itxurea berari be asko gustetan yakosan da.

Aikomensan ako aik edurtza-potausen urteko gaulendi beten gaure aititeri agorik ara entzune-ko kontuok. Olantxik asi jakun:

“Marin kontuetxakin gurosues? Ba, aitu sur geuretxuok. Ninaupe gure aurrekoari entzun-

2) Bertsio Etimologikoa

Aititeamamari sarri deukotset entzunda ori Anbotoko Señorearen kontu ori. Gure zaar-rak e olango gauza asko kontetan euskuezan batez be negu inguruan an beesuaren oboan bermutsik eta esku kiputuak berotuten egoten gintzazanean zein otzak tragadu.

Gurean, aitita gendun kontulariagoa eta gauluntzetan artagarantan eragoion bitartean itzelezko kontuak kontetan euskuzan, zeinbat gura eta arexen beste.

Baten e, Anbotoko Señorearen kontuekaz asi jakun, denodu guztiagaz asi be, segun itxurea berari be asko gustetan jakozan eta.

Aikomenzan arako areikedurtzak bota euazan urteko gaulendi baten geure aititari aorikara entzune-ko kontuok. Olantxik asi jakun:

“Mariren kontuak jakin gura dozuez? Ba, aitu zuur geuretxuok. Nik neuk be gure aurrekoei

3) Bizkaiera Literarioa

Aitite-amamei sarri deukotset entzunda hori Anbotoko Señorearen kontu hori. Gure zaharrek e holango gauza asko kontetan euskuezan batez be negu inguruan han behesuaren oboan bernutsik eta esku kiputuak berotuten egoten gintzazanean zein hotzak tragatu.

Gurean, aitita gendun kontulariagoa eta gauluntzetan artagarantan eragoion bitartean itzelezko kontuan kontetan euskuzan, zeinbat gura eta harexen beste.

Baten e, Anbotoko Señorearen kontuekaz hasi jakun, denodu guztiagaz hasi be, segun itxurea berari be asko gustetan jakozan eta.

Aikomenzan harako haiek edurtzak bota ebazan urteko gaulendi baten geure aititari ahorik hara entzune-ko kontuok. Holantxik hasi jakun:

“Mariren kontuak jakin gura dozuez? Ba, aitu zuhur geuretxuok. Nik neuk be gure aurreko-

4) Euskara Batua

Aitite-amamei sarri deukotset entzunda hori Anbotoko Señorearen kontu hori. Gure zaharrek e holango gauza asko kontetan zizkiguten batez ere negu inguruan han behesuaren oboan bernutsik eta esku kiputuak berotzen egoten ginenean zein hotzak tragatu.

Gurean, aitita genuen kontulariagoa eta gauluntzetan artagarantzen eragoion bitartean itzelezko kontuan kontetan zizkigun, zenbat gura eta harexen beste.

Baten e, Anbotoko Señorearen kontuekin hasi zitzaigun, denodu guztiarekin hasi ere, segun itxurea berari ere asko gustetan zitzaizkion eta.

Aikomenzan harako haiek edurtzak bota zituen urteko gaulendi batean geure aititari ahorik hara entzune-ko kontuok. Holantxik hasi zitzaigun:

“Mariren kontuak jakin gura dituzue? Ba, aitu zuhur geuretxuok. Nik neuk ere gure aurre-

da daukotziedanes, guk Anbotoko Señorea deretxagunek Mari i eukan ixena, t'Anboto sana letxe bere okulu alosokoana, ba ortixitxatorko Mari Anbotokoa ixena bera be.

Nor, nongoa eta noskoa dan? Batepaki! Guk u, Jesukristo yayo aurreko personajea salas-koa daukotzu entzunde, oniri serori, abade ta fraileari bates be, da ba sera, errien in ixineko seoser sugertetan sanean, min bako arrana ugerratzaten dauela ta, beragana yoaten sireala erritarrak konsulta eskatan eta erantzun itotziela onesean yoaneskero, txarresean barres e, mantzinek ixin bear i auen seguru!

Kobasuloko atakaraskero, kontus e, aurrerantza sartu bear izaten san eta atzerantza urten badaezpada, sein beragas lotu barruan betiko. Batenbape burlesartzat artzegaitiño estukura gorriepasaute i dao bildursartue ta berbaltue kendu esinik.

Bixi, kobasuloetan bixi ei sen seguru. Emen gure parajea, Bizkai partean, yakine, kobasulo bi i aukesan bere-berenak, Anbotokoa ta Supeleorrekoa Gorbayen,

entzunda deukotsedanez, guk Anbotoko Señorea deritzagunak Mari ei eukan izena, eta Anboto zan letxe bere okelu alosokoena, ba ortixik datorko Mari Anbotokoa izena bera be.

Nor, nongoa eta noizkoa dan? Batek badaki! Guk u, Jesukristo jaio aurreko personajea zalazkoa deukotsu entzunda, oneiri zerori, abade eta fraileeri batez be, eta ba zera, errian egin ezineko zoezer sugertetan zanean, miin bako arrana ugerrak jaten dauala eta, beragana joaten zirala erritarrak konsulta eskatan eta erantzun egiten eutsiela onezean joan ezkerro, txarrezean barriz e, mantzinak izan bear ei euan seguru!

Kobazuloko atakaraz gero, kontuz e, aurrerantz sartu bear izaten zan eta atzerantz urten badaezpada, zein beragaz lotu barruan betiko. Batenbat be bur-lazartzat artzegaitino estukura gorriak pasauta ei dago bildursartua eta berbaltua kendu ezinik.

Bizi, kobazuloetan bizi ei zan seguru. Emen gure parajea, Bizkai partean, jakina, kobazulo bi ei eukazan bere-bereak, Anbotokoa eta Supelegorrekoa Gorbeian,

ei entzunda deukotsedanez, guk Anbotoko Señorea deritzagunak Mari ei eukan izena, eta Anboto zan letxe bere okelu alosokoena, ba hortixik datorko Mari Anbotokoa izena bera be.

Nor, nongoa eta noizkoa dan? Batek badaki! Guk u, Jesukristo jaio aurreko personajea zalazkoa deukotsu entzunda, honei zeroi, abade eta fraileei batez be, eta ba zera, herrian egin ezineko zoezer sugertetan zanean, mihin bako arrana ugerrak jaten dauala eta, beragana joaten zirala heritarrak konsulta eskatan eta erantzun egiten eutsiela onezean joan ezkerro, txarrezean barriz e, mantzinak izan bear ei eban seguru!

Kobazuloko atakaraz gero, kontuz e, aurrerantz sartu bear izaten zan eta atzerantz urten badaezpada, zein beragaz lotu barruan betiko. Batenbat be bur-lazartzat hartzegaitino estukura gorriak pasauta ei dago bildursartua eta berbaltua kendu ezinik.

Bizi, kobazuloetan bizi ei zan seguru. Hemen gure parajea, Bizkai partean, jakina, kobazulo bi ei eukazan bere-bereak, Anbotokoa eta Supelegorrekoa Gor-

koei entzunda deukotsedanez, guk Anbotoko Señora deritzagunak Mari ei zeukan izena, eta Anboto zen letxe bere okelu alosokoena, ba hortixik datorkio Mari Anbotokoa izena bera ere.

Nor, nongoa eta noizkoa den? Batek badaki! Guk u, Jesukristo jaio aurreko personajea zelazkoa deukotsu entzunda, hauei zeroi, abade eta fraileei batez ere, eta ba zera, herrian egin ezineko zoezer sugertetan zanean, mihin gabeko arrana ugerrak jaten duela eta, beragana joaten zirela heritarrak konsulta eskatzen eta erantzun egiten ziela onezean joanez gero, txarrezean berriz e, mantzinak izan bear ei zuen seguru!

Kobazuloko atakaraz gero, kontuz e, aurrerantz sartu bear izaten zen eta atzerantz irten badaezpada, zein beragaz lotu barruan betiko. Batenbat ere bur-lazartzat hartzegaitino estukura gorriak pasauta ei dago bildursartua eta berbaltua kendu ezinik.

Bizi, kobazuloetan bizi ei zen seguru. Hemen gure parajea, Bizkai partean, jakina, kobazulo bi ei zeuzkan bere-bereak, Anbotokoa eta Supelegorrekoa Gor-

Itxinako asduien, Atxulo baño arean barruratuagoan, Oroskorantz inean.

Anboton denpora geao emoten i auen Supeleorren baño.

Urterik urteko udabarriagas naste, garretan eta txispotzean yoaten i sen Supeleorreti Anbotora Dimeko Baltzola ondoko Petralandako landan piperdi indengo sorgin eta ganetiko gustiekas.

Suok estosue yakinbingo baie, atxine, Dimen, Lamindao ganean Petralandako Landeadao, eta antxe iten i auriesan sorginek eta beste ganetikoak auren funtziñoak akar deabrue erdien dauriela. Enoatzue ango serik i kontau be iten, parte txarrekoakandik i egun argis apartau obe, aitearen da semearen... ostaintean?

Bein Anbotoraskero, udebarrie asten san, da beragas soloariak eta basoak orrire ta lorera etorten sirean, gaurko moduen, baie atxine udebarrie Marik ekarten auela pentzetan san, da batepaño geaok siñistu be bai, jenteak etzeukalako gaur beste konozi-

Itxinako azduian, Atxulo baino arean barruratuagoan, Orozkorantz einean.

Anboton denpora geiago emoten ei euan Supelegorren baino.

Urterik urteko udabarriagaz naaste, garretan eta txispotsean joaten ei zan Supelegorretik Anbotora Dimako Baltzola ondoko Petralandako landan piperdi eginda ango sorgin eta gainetiko guztiekaz.

Zuok ez dozue jakin be egingo baina, antxina, Diman, Lamindao ganean Petralandako Landa dago eta antxe egiten ei eudiezan sorginak eta beste gainetikoak euren funtziñoak aker deabrua erdian daudiela. Ez noatzue ango zerik i kontatu be egiten, parte txarrekoengandik i egun argiz apartadu obe, aitearen eta semearen... osterantzean?

Bein Anbotoraz gero, udabarria asten zan, eta beragas soloariak eta basoak orrira eta lorera etorten ziran, gaurko moduan, baina antxina udabarria Marik ekarten euala pentsetan zan, eta batek baino geiagok sinistu be bai, jenteak ez eukalako gaur

beian, Itxinako hazduian, Atxulo baino arean barruratuagoan, Orozkorantz einean.

Anboton denpora gehiago emoten ei eban Supelegorren baino.

Urterik urteko udabarriagaz nahaste, garretan eta txispotsean joaten ei zan Supelegorretik Anbotora Dimako Baltzola ondoko Petralandako landan piperdi eginda hango sorgin eta gainetiko guztiekaz.

Zuok ez dozue jakin be egingo baina, antxina, Diman, Lamindao ganean Petralandako Landa dago eta hantxe egiten ei ebezan sorginek eta beste gainetikoek euren funtziñoak aker deabrua erdian dabela. Ez noatzue hango zerik i kontatu be egiten, parte txarrekoengandik i egun argiz apartatu hobe, aitearen eta semearen... osterantzean?

Behin Anbotoraz gero, udabarria hasten zan, eta beragas soloariak eta basoak orrira eta lorera etorten ziran, gaurko moduan, baina antxina udabarria Marik ekarten ebala pentsetan zan, eta batek baino gehiagok sinistu be bai, jenteak ez eukalako gaur beste konozi-

beian, Itxinako hazduian, Atxulo baino arean barruratuagoan, Orozkorantz einean.

Anboton denpora gehiago emoten ei zuen Supelegorren baino.

Urterik urteko udabarriagaz nahaste, garretan eta txispotsean joaten ei zen Supelegorretik Anbotora Dimako Baltzola ondoko Petralandako landan piperdi eginda hango sorgin eta gainetiko guztiekaz.

Zuok ez duzue jakin ere egingo baina, antxina, Diman, Lamindao ganean Petralandako Landa dago eta hantxe egiten ei zituzten sorginek eta beste gainetikoek euren funtziñoak aker deabrua erdian dutela. Ez noakizue hango zerik i kontatu ere egiten, parte txarrekoengandik i egun argiz apartatu hobe, aitearen eta semearen... osterantzean?

Behin Anbotoraz gero, udabarria hasten zen, eta beragas soloariak eta basoak orrira eta lorera etorten ziren, gaurko moduan, baina antxina udabarria Marik ekarten zuela pentsetan zen, eta batek baino gehiagok sinistu ere bai, jendeak ez zeukalako gaur beste konozi-

simintu. Mari garretan ikusten i audien Supeleorreti Anbotora t´axe ixitesan udebarrien señaleta erritarren posa, urteko yakia logretako.

Da, ba gero, udebarrik ara, sera, udea eta udako koxitzak. Emen, liñoa, garie ta jenero geao be kuxau ixin du eta gure aurrekoak es aukienes denporalean kontrako erremediorik i, ba arriskuak arrimau ala, Mari Anbotokoari iten i otzien bisita koxitzak kontzebretak, se klaro, koxitza txarrakas ser? ba, esaukie ta gosea, kendu bakoa ganera, nopete etzekadetak biripoak? liño pasau be inde ori gero e! batesbe urte auritzuetan. Auri urteetan antza, Mari Anbotokoa itzesotik ibiltan i sen inisituotzean, da, ba, yakine, orrexe(k)fundetan i ausen aurite t´uriolak eta leorrekoa(k)pagau bear galtzaiek, bueno, itzesoan bertan be deskalabruak pasau dire gero e!

Udagoienez, arto, fruta, ortuari eta ganetikoki yakipatzetan sieran negu gogorrari autziteko.

Semendi aurretuan liñoa ereitan san eta geroago garie

beste konozimentu. Mari garretan ikusten ei eudien Supelegorretik Anbotora eta axe izaten zan udabarriaren seinale eta erritarren poza, urteko jakia logretako.

Eta, ba gero, udabarrik ara, zera, udea eta udako koxitzak. Emen, liñoa, garia eta jenero geiako be kogidu izan dogu eta gure aurrekoak ez eukienez denporalean kontrako erremediorik i, ba arriskuak arrimadu aala, Mari Anbotokoari egiten ei eutsoen bisita koxitzak kontzebretak, ze klaro, koxitza txarrekaz zer? ba, ezeukia eta gosea, kendu bakoa gainera, nork bete etzekadetak birapoak? liñoiz pasatu be egin da hori gero e! batezbe urte eurietsuetan. Euri urteetan antza, Mari Anbotokoa itsasotik ibiltan ei zan inizituotzean, da, ba, jakina, horrexek fundetan ei euzan euri-te eta uriolak eta legorrekoak pagadu bear galtzaiak, bueno, itsasoan bertan be deskalabruak pasadu dira gero e!

Udagoienez, arto, fruta, ortuari eta gainetikoki jakia batzean ziran negu gogorrari eutsiteko.

Zemendi aurretuan liñoa ereitan zan eta geroago garia

mentu. Mari garretan ikusten ei eben Supelegorretik Anbotora eta haxe izaten zan udabarriaren seinale eta herritarren poza, urteko jakia logretako.

Eta, ba gero, udabarrik hara, zera, udea eta udako koxitzak. Hemen, liñoa, garia eta jenero gehiako be kogidu izan dogu eta gure aurrekoak ez eukienez denporalean kontrako erremediorik i, ba arriskuak arrimatu ahala, Mari Anbotokoari egiten ei eutsoen bisita koxitzak kontzebretak, ze klaro, koxitza txarrekaz zer? ba, ezeukia eta gosea, kendu bakoa gainera, nork bete etzekadetak birapoak? liñoiz pasatu be egin da hori gero e! batezbe urte eurietsuetan. Euri urteetan antza, Mari Anbotokoa itsasotik ibiltan ei zan inizituhotzean, da, ba, jakina, horrexek fundetan ei ebazan euri-te eta uriolak eta legorrekoak pagatu behar galtzaiak, bueno, itsasoan bertan be deskalabruak pasatu dira gero e!

Udagoienez, arto, fruta, ortuari eta gainetikoki jakia batzen ziran negu gogorrari eutsiteko.

Zemendi aurretuan liñoa ereitan zan eta geroago garia

mentu. Mari garretan ikusten ei zuten Supelegorretik Anbotora eta haxe izaten zen udabarriaren seinale eta herritarren poza, urteko jakia logratzeko.

Eta, ba gero, udabarrik hara, zera, udea eta udako koxitzak. Hemen, liñoa, garia eta jenero gehiako ere kogidu izan dogu eta gure aurrekoak ez zeukatenez denporalean kontrako erremediorik i, ba arriskuak arrimatu ahala, Mari Anbotokoari egiten ei zioten bisita koxitzak kontzebretak, ze klaro, koxitza txarrekaz zer? ba, ezeukia eta gosea, kendu gabekoa gainera, nork bete etzekadetak birapoak? liñoiz pasatu ere egin da hori gero e! batezbe urte eurietsuetan. Euri urteetan antza, Mari Anbotokoa itsasotik ibiltan omen zen inizitu-hotzean, da, ba, jakina, horrexek fundetan ei zituen euri-te eta uriolak eta legorrekoak pagatu behar galtzaiak, bueno, itsasoan bertan ere deskalabruak pasatu dira gero e!

Udagoienez, arto, fruta, ortuari eta gainetikoki jakia batzen ziren negu gogorrari eusteko.

Zemendi aurretuan liñoa ereitan zen eta geroago garia

ernaro onera etorri eta urrengo udabarrian askai onagaz garatuteko.

Solo bearrak akabauskero, idebateak, egurgintzea, iketzegostea eta olango bearrak etorte sirean eta denodu gustiegas eragoion jenteak biximodue aurrera atetako, d' in in bear, ostaintxean goseatxan.

Neguegas bapatera, Anbotoko kobasulua itxi te Anbotoko Señorea garra dariola ta txispotzean ikusten i sen Supeleorreko kobasuloan sartzean. Antxe emoten i ausen neguko egun da gaube luseak. Estostesue siñistu bingobaie, ni naupe ikusite daukopaten Mari Anbotokoa garretan sartzean Supeleorren. Egia da gero ori! Iketzegosten nengoan beste biges Lekandapean da, serean, Gabon bespera besperan ukusi gendun Itxinan sartzean.

Bildur andiagorik i sekula santan be estopasau!

Negue, denpora bardin, lu-seago iten san naite egune luse-tus yoan. Baie, egunetxoan egunek etorri, negue be yoan itesan

ernaro onera etorri eta urrengo udabarrian azkai onagaz garatuteko.

Solo bearrak akabadu ezke-ro, idaebateak, egurgintza, iketzegostea eta holango beharrak etorten ziran eta denodu guztiagaz eragoion jenteak bizimodua aurrera aterateko, eta egin egin behar, osterantzean goseak jan.

Neguagaz bat batera, Anbotoko kobazulua itxi eta Anbotoko Señorea garra dariola eta txispotzean ikusten ei zan Supelegorreko kobazuloan sartzean. Antxe emoten ei euazan neguko egun eta gau luzeak. Ez deustazue sinistu be egingo baina, nik neuk be ikusita daukat baten Mari Anbotokoa garretan sartzean Supeleorren. Egia da gero ori! Iketzegosten nengoan beste bigaz Lekandapean eta, zerean, Gabon bezpera bezperan ikusi gendun Itxinan sartzean.

Bildur andiagorik i sekula santan be ez dot pasadu!

Negua, denpora bardin, luze-ago egiten zan naiz eta eguna luzatuz joan. Baina, egunak joan egunak etorri, negua be joan egiten zan

ernaro onera etorri eta urrengo udabarrian hazkai onagaz garatuteko.

Solo beharrak akabatu ezke-ro, idaebateak, egurgintza, iketzegostea eta holango beharrak etorten ziran eta denodu guztiagaz eragoion jenteak bizimodua aurrera aterateko, eta egin egin behar, osterantzean goseak jan.

Neguagaz bat batera, Anbotoko kobazulua itxi eta Anbotoko Señorea garra dariola eta txispotzean ikusten ei zan Supelegorreko kobazuloan sartzen. Hantxe emoten ei ebazan neguko egun eta gau luzeak. Ez deustazue sinistu be egingo baina, nik neuk be ikusita daukat baten Mari Anbotokoa garretan sartzen Supeleorren. Egia da gero hori! Iketzegosten nengoan beste bigaz Lekandapean eta, zerean, Gabon bezpera bezperan ikusi gendun Itxinan sartzen.

Bildur handiagorik i sekula santan be ez dot pasatu!

Negua, denpora bardin, luze-ago egiten zan nahiz eta eguna luzatuz joan. Baina, egunak joan egunak etorri, negua be joan egiten

ernaro onera etorri eta urrengo udabarrian hazkai onagaz garatuteko.

Solo beharrak akabatuz gero, ida-ebateak, egurgintza, iketzegostea eta holako beharrak etorten ziren eta denodu guztiagaz eragoion jenteak bizimodua aurrera aterateko, eta egin egin behar, osterantzean goseak jan.

Neguagaz bat batera, Anbotoko kobazulua utzi eta Anbotoko Señora garra dariola eta txispotzean ikusten ei zen Supeleorreko kobazuloan sartzen. Hantxe emoten ei zituen neguko egun eta gau luzeak. Ez didazue sinistu ere egingo baina, nik neuk ere ikusita daukat baten Mari Anbotokoa garretan sartzen Supeleorren. Egia da gero hori! Iketzegosten nengoan beste birekin Lekandapean eta, zerean, Gabon bezpera bezperan ikusi genuen Itxinan sartzen.

Bildur handiagorik i sekula santan ere ez dut pasatu!

Negua, denpora berdin, luze-ago egiten zen nahiz eta eguna luzatuz joan. Baina, egunak joan egunak etorri, negua ere joan egi-

eta barriro be udebarrie allegau danon poserako.

Neguek e losorroiti urtetan auenean udebarrie yayoten san eta beragas batera Mari Anbotokoak a Supeleorretik urten eta Anbotoko bidea artzean i auen eta olan ibili i sen kristau aroko denpora barrien podasus siñiske-
rori aistu arte”.

Beno ba, gitxibekorago bera-
go, aikorsan gure aیتiten kontuok. Guk u, aیتitari, kontu kontetan asten yakunean, begiripe eskauntzen kentzean, da, ixilduten sanean dana gintzesan preguntea, da ba, gasteagoak ixitera, eskolati t’alexako dotrinati yakiten gendun krintiñaututen etorren erriek ie-ie gustis aistu ausela lenaoko siñiskerak.

Gure gogaldian, udebarrie ta negue bardin esautu dus baie usadioak kanbiante. Esaterako, untzurarte udebarriti udara bitartean, soloak bedein-katu iten sirean, abadeak iten ausen isopoa astindute lau axeetara. Da, ba, sera, ernaro onaren ostein eka-txa edo uriola arriskua barruntau esketiño, errogatibak iten sirean

eta barriro be udabarria allegadu danon pozerako.

Neguak e lozorrotik urtetan euanean udabarria jaioten zan eta beragas batera Mari Anbotokoak a Supelegorretik urten eta Anbotoko bidea artzean ei euan eta olan ibili ei zan kristauaroko denpora barrien podazuz siniskera ori aaztu arte”.

Bueno ba, gitxi bat gorago beerago, aikorzan gure aیتitaren kontuok. Guk u, aیتitari, kontu kontetan asten jakunean, begirik be ez geuntsan kentzean, eta, isilduten zanean dana gintzazan preguntea, eta ba, gazteagoak izatera, eskolatik eta eleizako doktrinatik jakiten gendun krintiñaututen etorren erriak ia-ia guztiz aaztu euazala lehenagoko siniskerak.

Gure gogaldian, udabarria eta negua bardin ezagutu doguz baina usadioak kanbiaduta. Esaterako, oraintsurarte udabarritik udara bitartean, soloak bedein-katu egiten ziran, abadeak egiten euazan isopua astinduta lau aize-etara. Eta, ba, zera, ernaro onaren ostein ekaitza edo uriola arriskua barruntadu ezketino,

zan eta barriro be udabarria ailegatu danon pozerako.

Neguak e lozorrotik urtetan ebanean udabarria jaioten zan eta beragas batera Mari Anbotokoak a Supelegorretik urten eta Anbotoko bidea hartzen ei eban eta olan ibili ei zan kristauaroko denpora barrien podazuz siniskera hori ahaztu arte”.

Bueno ba, gitxi bat gorago beherago, aikorzan gure aیتitaren kontuok. Guk u, aیتitari, kontu kontetan hasten jakunean, begirik be ez geuntsan kentzen, eta, isilduten zanean dana gintzazan preguntea, eta ba, gazteagoak izatera, eskolatik eta eleizako doktrinatik jakiten gendun krintiñaututen etorren herriak ia-ia guztiz ahaztu ebazala lehenagoko siniskerak.

Gure gogaldian, udabarria eta negua bardin ezagutu doguz baina usadioak kanbiatuta. Esaterako, oraintsurarte udabarritik udara bitartean, soloak bedein-katu egiten ziran, abadeak egiten ebazan isopua astinduta lau haize-etara. Eta, ba, zera, ernaro onaren ostein ekaitza edo uriola arriskua barruntatu ezketino,

ten zen eta barriro ere udabarria ailegatu denon pozerako.

Neguak e lozorrotik irtetzen zuenean udaberria jaiotzen zen eta beragas batera Mari Anbotokoak a Supelegorretik irten eta Anbotoko bidea hartzen ei zuen eta horrela ibili ei zen kristauaroko denpora berrien podazuz siniskera hori ahaztu arte”.

Bueno ba, gutxi bat gorago beherago, aikorzan gure aیتitaren kontuok. Guk u, aیتitari, kontu kontetan hasten zitzaigunean, begirik ere ez genion kentzen, eta, isiltzen zenean dena ginen pregunta, eta ba, gazteagoak izatera, eskolatik eta eleizako doktrinatik jakiten genuen krintiñautzen zetorren herriak ia-ia guztiz ahaztu zituela lehenagoko siniskerak.

Gure gogaldian, udaberria eta negua berdin ezagutu ditugu baina usadioak kanbiatuta. Esaterako, oraintsurarte udabarritik udara bitartean, soloak bedein-katu egiten ziren, abadeak egiten zituen isopua astinduta lau haize-etara. Eta, ba, zera, ernaro onaren ostein ekaitza edo uriola arriskua barruntatuz gero, erroga-

abadea aurreti dala, prakagorri, deabru ta serok o parte txarreko gustiok uxatuteko odeilainoetatik.

Oin, gu gau be, sartzaroan sartu gara ta gure ostekoak gurea be aistuko daurie gaurko mundue, labrantzea itxi te bateko-besteko urire yoan jakulako. Se ingotzu ba? Datorrena artu in bear. Uin estao lengorik. Sikeran auskerari autzingo bagauskio? Tiaupa, denporeak agartuko yok edurre mendien!

errogatibak egiten ziran abadea aurretik dala, prakagorri, deabru eta zerok o parte txarreko guztiok uxatuteko odei-lainoetatik.

Orain, gu geu be, zaartzaroan sartu gara eta gure ostekoak gurea be aaztuko audie gaurko mundua, labrantzea itxi eta bateko-besteko urira joan jakulako. Zer egingo deusagu ba? Datorrena artu egin bear. Orain ez dago leengorik. Sikeran euskerrari eutsingo bageuntso? Tiauk ba, denporeak agertuko jok edurra mendian!

errogatibak egiten ziran abadea aurretik dala, prakagorri, deabru eta zerok o parte txarreko guztiok uxatuteko hodei-lainoetatik.

Orain, gu geu be, zahartzaroan sartu gara eta gure ostekoek gurea be ahaztuko dabe gaurko mundua, labrantzea itxi eta bateko-besteko urira joan jakulako. Zer egingo deusagu ba? Datorrena hartu egin bear. Orain ez dago lehengorik. Sikeran euskerrari eutsingo bageuntso? Tiauk ba, denporeak agertuko jok edurra mendian!

tibak egiten ziren abadea aurretik dela, prakagorri, deabru eta zerok o parte txarreko guztiok uxatzeko hodei-lainoetatik.

Orain, gu geu ere, zahartzaroan sartu gara eta gure ostekoek gurea ere ahaztuko dute gaurko mundua, labrantzea utzi eta bateko-besteko hirira joan zaigulako. Zer egingo diogu ba? Datorrena hartu egin bear. Orain ez dago lehengorik. Sikeran euskerrari eutsiko bagenio? Tiauk ba, denporeak agertuko dik edurra mendian!

BIBLIOGRAFIA

OHARRA: Iturri bezala, *Etniker* aldizkarian argitaratutakoez gain, Etno-Linguistika bide-tik 1983rik hona gaurko euskeran argitaratutako neure liburu batzuk aipatuko ditut herri jakintzaren aberastasunaren ezaugarri.

- ETXEBARRIA AYESTA, J. M. "Kirikiñusiek" y "Jentilek dirala ta". In: *Etniker* II. Bilbao: Labayru Ikast., 1976.
- . "Zeberioko Ipuinak eta Esaundak". In: *Etniker* V. Bilbao: Labayru Ikast., 1981.
- . "Karobiak eta Anbotoko Señorearen Sorrera". In: *Etniker* VI. Bilbao: Labayru, 1982.
- . *Mari Anboton eta Gorbeian*. Zornotza: Ika-Ibaizabal, 1983.
- . *Basajaunak*. Zornotza: Ika-Ibaizabal, 1983.
- . *Zeberioko Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa*. Tesis Doctoral. Universidad de Deusto, 1988.
- . *Euskal Sineskerak I*. Zornotza: Ika-Ibaizabal, 1989.
- . *Euskal Sineskerak II*. Zornotza: Ika-Ibaizabal, 1989.
- . *Euskal Sineskerak III*. Zornotza: Ika-Ibaizabal, 1989.
- . *Bizkaitz*. Zornotza: Ika-Ibaizabal, 1990.
- . *Zeberioko Haraneko Euskararen Azterketa Etno-Linguistikoa*. Tesis Doctoral corregida y aumentada. Zornotza: Ibaizabal, 1991.
- . *Gabonetako Ipuinak*. Zornotza: Ibaizabal, 1994.
- . *Gorbeiatarrak*. Zornotza: Ibaizabal, 1994.
- . *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbao: Labayru-BBK, 1995.
- . *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*. Zornotza: Ibaizabal, 1995.
- . *Gure Fabulak Bertsoz*. Zornotza: Ibaizabal, 1996.
- . *Iaun Zuria*. Zornotza: Ibaizabal, 1997.
- . *Txorien Zoria*. Zornotza: Ibaizabal, 1998.
- . *Eguberri eta Gabon Ipuinak*. Zornotza: Ibaizabal, 1999.
- . *Zeberioko Kantak*. Auspoa Liburutegia 259. Oartzun: Sendoa, 1999.
- . *Biziak bizilan*. Amorebieta: Ibaizabal, 2001.
- . *Euskitz*. Amorebieta: Ibaizabal, 2002.
- MANTEROLA, A. "Gorbeia inguruko Ipuinak eta Esaundak". In: *Etniker* II. Bilbao: Labayru Ikast., 1978.
- ; MANTEROLA, A. "Gorbeia inguruko Ipuinak eta Esaundak - jarraipena". In: *Etniker* IV. Bilbao: Labayru Ikast., 1979.—. *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*. CD Multimedial. Zornotza: Ibaizabal, 2002.

—. *Euskal Urtea, Ohituraz Betea*. Amorebieta: Ibaizabal, 2003.

—. *Astoa: Historiako astorik ospetxuenak*. Amorebieta: Ibaizabal, 2004.

—. *Perutxu eta Jentila*. Amorebieta: Ibaizabal, 2006.



On Jose Miguel Barandiaran eta Juan Manuel Etxebarria bere mito-ipuin liburuak oparitzen On Jose Migueli Ataunen 100 urte bete zituen egunean (1989-XII-31. Argazkia: Labayru).